



IKASTOLAKO ZOZKETA

IKASTOLAKO HORNITZAILEEK EMANDAKO EKARPENEKIN LORTUTAKO SARIAK BANATUKO DITUEN ZOZKETA EGINGO DUGU IKASTOLAKO JAIAN

*Bi urteko etenaldiaren ostean Ikastolako jaia ospatuko dugu aurten **ekainaren 10 eta 11n**. Aparteko ospakizuna izango da gainera, Ikastolaren 50 urteurrena!*

Ikastolako Bazkideen Batzarrak adostutakoari helduz, zozketa antolatuko dugu bertan.

Ikastolako hornitzaile ezberdinei diru laguntza eskatu zaie. Laguntza horiek zozketako sariak erosteko erabiliko dira. 4 sari izango ditugu: 2.000€ko bidaia, 500€ko bidaia, asteburu baterako egonaldia eta bi pertsonentzako spa banoa.

TAKO BANAKETARAKO EPEA

Ikastola osatzen dugun familia orori zozketarako tako bana egokituko zaigu, eta berau saltzeko SAIAKERA egitea ESKATZEN dizuegu Artekakartza Batzordetik.

*Zozketarako boleto **takoak idazkaritzan banatuko ditugu maiatzaren 16ko astetik aurrera**. Tako bakoitzak 25 papeleta izango ditu. Papeletaren prezioa 1€koa izango da. Beraz, tako osoaren balioa 25€koa izango da.*

*Zozketaren **kobrantsa maiatzeko erreiboan** azalduko da.*

*Ekimen honetan parte hartu nahi ez duen familiak **takoa ez jasotzeko aukera izango du maiatzaren 13ra arteko epean**. Horretarako idazkaritzan idatziz adierazi beharko da. Aukera hau erabiltzen duten familiei EZ zaie*



LAUDIO
ikastola
50 urte

EZER KOBRATUKO, baina ezinbestekoa da idazkaritzan komunikatzea, bestela takoa jasotzen ez duten familiek berdin berdin parte hartuko dute zozketan.

Edozein familiak egokitu zaion zozketa takoa baino gehiago sal dezake, horretarako soberan dauden takoak idazkaritzan lor ditzakete.

Bide batez, norbaitek diru iturri hauek areagotuko dituen edozein ekimen planteatuz gero, Ikastolatik berauek bultzatuko ditugula ziurtatzen dizuegu.

Mila esker alde zuretik!